TXEPETXA

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko
Neurria: Hamarreko handia (hg). Bost puntuko handia (ip)
Testuaren iturria:
1994. Pedro María Otaño - Bertso guziak. Auspoa. 104 or.



Pello Mari Otaño Barriola
(1857 Zizurkil, Gipuzkoa
– 1910 Rosario, Argentina)

1894an plazaratutako sorta, txori txiki honen ezaugarriak zehatz azalduz.

1 Askotan esan izandu dute
gizon ikastun **argiyak**
nola pixtiak izan litezken
gure **erakuslariyak**
erlea da bat aipatzen dana
o zer lan **harrigarriyak**
jartzen dituzten gure aurrian
honek eta **txingurriyak**!
Txepetxak berriz erakusten du
hainbeste nola haik **biyak**.

2 Euskal lurreko txorietan dan
txikitxuena da **bera**
gaztain kolore bakarrekoa
nahi bada ez da **ederra**
begi argiak, buru xanpala*
moko ttenttia* **aurrera**
gorputza motxa, hanka laburrak
xaltokako **ibilera**
xalapartako* hegalaria
eta kantari **ergela**.

* ***xanpala*** = *zapala, xabala*
ttenttia = *xuta*
xalapartako = *zalapartako, zaratatsu*

3 Txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi **duan**
baina gustatzen zaio jartzea
adar **sendoxiaguan**
amildu arren ez leike galdu
dakielako **heguan**
baina aurkitzen baldin bada ere
burnizko **aldamiuan**
hiru-lau aldiz xanpatutzen du
seguru ote **daguan**.

4 Udaberrian lehendabiziko
kabia **txepetxarena**
azaldutzen da, ta ezaguna:
goroldiozkoa **dena**
arbol-gerrian untza-tartean
du lekurik **maitiena**
ta gizon askok ikusitzian
irixpirian* **daguena**
esan ohi dute: “Zer konfiantza
txori txar honek duena!”

5 Ta edozeinek esan lezake
berari **begiratzian**
arretarikan ez dadukala
egin leioken **gaitzian**
ez-idurian hark kabiari
beste zuloa **atzian**
egiten dio, handik joateko
aurrekoa **tapatzian**
erakutsiaz pentsa zagula
nola atera **sartzian**.



* ***irixpirian*** = *irits bidean, eskura*